



BARREN  
TOXIKOZ  
N...



# Pentsatu eta gozatzeko

'Euskara ala ezkara' zikloa



SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR  
www.textillagunak.com

943 744 457

## GOLIATH COMPLET LASTAIRA

- Haurraren lehen hilabeteetan, gorputza buruz behera geratzea saihesten du.
- Kotoi organikoz babestutako zorroa, transpirablea eta iragazgaitza.
- Elementuak umearen beharren arabera jarri edo kendu ditzakezu.



Lastaira, 15º dituen tala anatomikoa eta zilindro-er-labingarririk.



## MEKANOSA

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

## NAFARROA OINEZ 2018

ALTSASU - Urriak 21, igandea



Autobusa antolatu dugu Altsasuko Iñigo Aritza Ikastolari laguntzeko.

- Irteera: 09:30 (Sigmako autobus-geltokia)
- Itzulera: 19:30
- Prezioa: 10 € (Elgoibarko Izarrako bazkideek 9 €)

Autobusean joateko izena Elgoibarko Izarran eman behar da. Azken eguna: urriaren 18a. (autobusa irtetzeko gutxieneko kopurua 30 pertsona)

Antolatzailea:



Babeslea:



PINTURA ETA DEKORAZIOA

CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 98 61 62



Zer esango zenioke etorkizuneko zure ni-ari?

# FutureNi.eus

Nola irudikatzen duzu zeure burua 30 edo 40 urte barru? Zer espero duzu? Nolako izango da zure bizi kalitatea? Adinberri da gaurko zein biharko erantzuna, adinekoen **arreta integralerako eredu berritzaile bat** hedatzeko.

**Gehiago biziko gara. Bizi gaitezen hobeto.**

**ADINBERRI**  
OSASUMPSU ZAHARTZEKO  
ESTRATEGIA

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputazioen Pasa  
de Gijonkoa



**ETORKIZUNA  
ERAIKIZ**

# EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ  
azaroaren 23tik abenduaren 3ra

## Eman izena!

### LETREN ATZEAN DAGOENA

#### E: ERABILI

Erabili da EUSKARALDIA definitzeko berba klabea. Hitz garrantzitsuena, seguruenez. Euskaraz jakin eta ulertzen dugunon artean euskara gehiago erabiltzeko ariketa da.

#### U: ULERTU

Ulertzea da bi lagunek euskaraz jarduteko lehen baldintza. Elgoibartarron % 77k ulertzen du euskara. Ulertzen duenari egin diezaiokegu euskaraz, nahiz eta berak erdaraz erantzun.

#### S: SORTU

EUSKARALDIA euskaraz gehiago berba egiteko metodo berria sortu egin dugu. Asmatu egin dugu. Berria da eta jendeari gustatu egin zaio.

#### K: KOMUNITATEA

Komunitate moduan egingo dugu EUSKARALDIA ariketa. Herri moduan. Parte hartu ala ez erabaki pertsonala da, baina ariketa beste askorekin batera egingo duzu.

#### A: ARIKETA

EUSKARALDIA ariketa bat da. Euskaraz gehiago egiteko metodoa. EUSKARALDIA ez da euskararen aldeko mobilizazioa bat; ez da euskararen alde gaudela esateko ekimena.

#### R: ROLAK

Ariketan parte hartzeko bi roletako bat aukeratu behar da. Ahobizi edo belarriprest. Zuk nahiago duzuna. Zuk ondoen beteko duzuna. Biek dute garrantzia bera.

#### A: AHALEGINA

Ez da erraza hizkuntza ohiturak aldatzea. Ez da erraza beti egin duzun hori aldatzea. Baina lor daiteke, hala nahi bada. EUSKARALDIA ariketak konpromisoa eta ahalegina eskatzen du.

#### L: LANKIDETZA

Lankidetzari eta elkarlanari esker sortu eta garatuko da EUSKARALDIA. Erakunde publikoen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzari esker. Euskal Herrian eta euskal herrietan.

#### D: DENONA

EUSKARALDIA denona da. Nirea, zurea, gurea ... Eta ez da inorena. Ariketa horretan sinisten dugunona da. Egin nahi dugunona. Izena eman eta parte hartuko dugunona.

#### I: ILUSIOA

Ilusioa sortu du EUSKARALDIA ariketak. Ilusioa, poza, esperantza, gogoa ... Ekiteko ilusioa; egiteko poza; irabazteko esperantza; elkarrekin jarduteko poza.

#### A: ANIMATU

Animatu eta eman izena. Parte hartu. Hartu parte. Euskararen alde egotea ondo dago, baina ez da nahikoa. EUSKARALDIA ariketak egotetik egitera pasatzeko atea zabalduko digu.



## Berandu baino lehen

zaigu . Eta oraindik ez gara konturatu, edo ez dugu konturatu nahi. Baina denborak ez du isiltasunez ulertzen.

Gure burua stand-by gertatzen da orduan. Ez aurrera, ez atzera. Eta agian ez daude hemen, agian urrun daude, baina gertu izan daitezke, oraindik sentitzen badituzu. Oraindik goxo sentiarazten bazaituzte. Munduaren beste puntan egonda ere. Eta hausnarketa bat. Nahi dugunaren eta daukagunaren arteko talka geldiezin batean bizi gara: ez daukaguna nahi izan ohi dugu. Baina noizbait pentsatu izan dugu zer gertatzen den daukaguna nahi ez dugunean?

Baina atzera bueltarik ez da existitzen: ez rewind, ez pause, ezta stopik ere

bizitzan. Bai edo ez. Orain edo inoiz ez. Eta ez dugu bi aldiz pentsatu behar. Falta igarriko dugula jakin badakigun arren, gure falta sumatzen dutela errepikatzen dituten arren. Eta hor harrapatu behar gaitu bizitzak, oroitzapenak sortzeko momentu perfektuan, jakin minak mapen mugak gaintuzera eramaten gaituen momentu horretan bertan. Etorkizunean, orduan bai, oroitzapenei play emateko.

Ez utzi ezer zorretan eta hartu kafe hori hala agindu zenion lagun edo senitartekoarekin. Konpondu mundua hizkaltaldi batean, hala sentitzen baduzu. Gehiago bizi, eta gutxiago itxaron. Bidaia, eta ikasi. Ez dago beranduegi bat baino okerragorik. Minutuak inbertitu, eta bueltan irribarreak jasotzen hasi. Heldu, inoiz alde egiten ez duen horri.

**P**resarik ez dugula diote, beranduegi den arte. Eta konturatu gabe, sentitzen ari zinen lerro zuzena korapilatzen hasi zaizu. Inork aurretik abisatu gabe. Beti ez daudelako gris eskalak, batzuetan zuriaren eta beltzaren artean aukeratu beharra daukagulako. Pum. Bizitza une batetik bestera hankazgora jartzen

*“Ez utzi ezer zorretan eta hartu kafe hori  
hala agindu zenion lagun edo senitartekoarekin”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Euzko Legebaitzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzurika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBAR  
UOKLA  
ATUNTAMENTO

LAGUNTZAILEAK:



MENDAKO  
2008



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ▶ ALTERNATIBA

Hau sinatzen dugunok urriaren 20an *Orain presoak* lelopean Donostian egingo den manifestazioarekin bat egingo dugula adierazi nahi dugu. Giza eskubideak beti errespetatuak izan behar direla jakinda ere, gaur egun ez dago inolako motiborik euskal presoek aplikatzen zaien salbuespenezko legedia mantentzeko.

Horregatik, bat gatoz SAREK eta beste hainbeste eragilek eskatutakoekin. Hau da:

- Preso gaixoak eta adineko presoak berehala askatzeko.

- Sakabanaketa berehala amaitzeko, eta lehenbailehen Euskal Herriko espetxetara ekarriak izateko.

- Europako legediak dioen moduan, bi estatuko zigorren batuketaren aplikazioa.

- Lehen graduen aldaketa. Euskal presoek %95k lehen graduan betetzen dute zigorra, preso arriskutsuen estatusarekin, horrek dakartzan ondorioekin.

Gure herritarra den Sebas Etxaniz dugu gogoan batez ere. 74 urte ditu,

eta Villabonako espetxean dago. Bigarren gradura pasatu dute, baina ez diote egoera horri dagozkion eskubideak aplikatu nahi.

Elkarbizitza eta bakea nahi ditugulako, eta injustizian eta mendekuan oinarritzen den gizartea nahi ez dugulako, urriaren 20ko manifestazioa une egokia iruditzen zaigu hauek aldarrikatzeko.

**Sinatzaileak:** Roberto Altzerreka, Nerea Alustiza, Mari Tere Arakistain, Ion Arrieta, Miren Arrate Arrieta, Juan Carlos Arrieta, Jesus Mari Astigarraga, Jon Barurto, Ana Casquero, Mari Carmen Elustondo, Ane Espilla, Izaskun Estibariz, Mari Jose Estibariz, Tere Etxaniz, Begoña Gabilondo, Itziar Goñi, Jose Luis Ibarzabal, Jose Mari Igartua, Pablo Irureta, Imanol Larrañaga, Iñaki Laskurain, Maria Jesus Lazkano, Jon Lizarralde, Jesus Mari Makazaga, Pili Martinez, Asier Odriozola, Joseba Osoro, Pello Rubio, Jon Peli Uriguen, Anton Zabaleta, Iñaki Konde.

### ▶ TXALOTZEOA

Duela egun batzuk gure etxean eragina izan zuen suteak izua eta egone-

zina eragin zizkigun. Suhiltzaileen lan gogor eta nekazina gertutik bizi izan genuen. Baina haien eta udaltzainen eta ertzainen profesiotasunaren gainetik, gurekin izan zuten tratua azpimarratu nahi dugu, une larri hartan eskainitako laguntza, gurekin izan zuten pazientzia eta agertutako adeitasunagatik. Lerro hauen bitartez, gure esker ona adierazi nahi diegu haiei guztiei. Mila esker.

M.A.



## Florencio Gorriti Aguirre

2016ko urriaren 6an hil zen.

II. urteurreneko meza

2018ko urriaren 13an izango da.

*“Aita, ez gaitzazula sekula utz ahanztera  
mintzo zirela, ixilik zaudenean ere.  
Emaguzu fidantzia hori, zure beha gaudenean,  
amodioz ixiltzen zirela eta amodioz mintzatzen.*

*Ixilik egon edo mintza zaiten,  
beti Aita bera zira,  
aita bihotz bera duzu,  
gida gaitzazun mintzatuz  
ala hez gaitzazun ixilduz”.*

## Julen Zabaleta marrazkilari elgoibartarrak jasoko du 2018ko Gure Balioak Saria

Bere legatu historiko-artistiko garrantzitsuarengatik emango diote Julen Zabaleta Barrene-tea marrazkilari elgoibartarrari 2018ko Debabarreneko Gure Balioak Saria.

Ume-umetatik izan du marrazketarako zaletasuna eta 97 urterekin marrazten jarraitzen du Zabaletak. Epaimahaikideek "bere talentu, ekimen eta izaera altruista" azpimarratu dituzte; "beti prest agertu da bere ilustrazio lanak behar izan dituzten pertsona eta erakundeei uzteko eta bere ekarpena egiteko". Marrazketarako duen pasioari leial jarraituz, liburu ilustratzaile gisa egin duen ibilbidea ere nabarmendu dute.

Elgoibar, Eibar eta, oro har, Debabarreneko eraikin eta alderdi esanguratsuenak errealismo eta zehaztasun handiz jaso ditu bere marrazkietan. "Bere obraren bidez, Debabarreneko eta, oro har, Euskal Herriko aberastasun historiko eta arkitektoniko oparoa ikus daiteke, baita gure herriek bizi izan duten eraldaketa ere".

Sariak Debabarrenean gizarte balioren sustapenean nabarmendu diren pertsonak publikoki aitortzea du helburu eta epaimahaia aintzat hartu du artistaren "lan isil eta etengabekoa, sormena, umiltasuna eta aldarre ona".

Saria datorren urriaren 25ean emango diote Mallabiko pilotalekuan, 19:00etan hasiko den ekitaldian.



## Euriagatik, elizan eta arkupeetan egin zuten Errosarioko Amaren ezpata-dantza

San Bartolome Eguneko soka-dantzarekin gertatu zen moduan, Errosarioko Amaren ezpata-dantza ere eliza barruan eta elizako arkupeetan bakarrik dantzatu ahal izan zuten Haritz Euskal Dantzari Taldeko kideek domekan, euria zela-eta.

Ezpata txikiek meza nagusian egin zuten dantza eta ezpata-dantzari talde osoak elizako arkupeen babesean egin zuen gero. Kalegoen plazako eta Errosarioko Ama Birjinaren irudiaren azpiko saioak bertan behera utzi zituzten.

Hala ere, gerturatu zen jenderik eliza azpira. Udal ordezkari bat eta Juan Antonio Urbeltz antropologo eta dantza aditua ere hantxe ziren.



## Gutxienez bi astean egongo da itxita Karakoleko pasabidea


Juan Mugertza kalean irisgarritasuna hobetzeko egiten ari diren lanak direla-eta, Karakol zubia pare bat astean itxita egongo dela jakinarazi du Elgoibarko Udalak. Juan Mugertza kaleko hainbat bizilagunek jasaten dituzten hezetasun eta iragazketa arazoak irtenbidea emateko lanak egiten dihardute azken asteetan inguru horretan. Euritik babesteko lanak hasiak dira, eta horiek bukatuta koan hormigoia botako dute zoruan. Horiek bukatu bitartean egongo da hain zuzen ere itxita Karakoleko pasabidea.

## Jende ugari ibili zen Maalan Txankakuaren stock azokan



**T**xankakua merkatarik elkarteko 21 merkatarik stock azoka egin zuten zapatuan Maalan. Beren produktuak ohikoa baino prezio merkeagoan jarri zituztenez, jende ugari gerturatu zen salmenta postuetara. Unerik jendetsuena, baina, ehun ehuroko sei erosketa txeke zozkatu zituztenekoa izan zen. Izan ere, sariak eskuratzeko ezinbestekoa zen saritutako txartelaren jabea unean bertan agertzea. Lehen zenbaki sarituen jabeak azkar agertu arren azkenari kosta zitzaion gehiago. Honako hauek izan ziren sei irabazleak: Malen Carrascosa, Lourdes Ituriondo, Mariaje Iranzo, Marian Elizburu, Ina Bilbao eta Maria Cid.

## Maltzagako bidegorria oso-osoa dago irekita



Maltzaga parean, AP-1 eta AP-8ko lotunean, galtzadak bi erreietara zabaltzeko lanak egiten ari dira, eta ondorioz, iazko abendutik, Andikano eta Maltzaga arteko bidegorria itxita egon da, bigarren zentral elektrikitik aurrera. Bidegorriko bide-bazterrak garbituta eta 150 bat metro inguruko zatian asfalto berria jarrita, baina, ireki dute berriz oinezko eta txirrindularientzat.

## Egurrezko zoruan ez labaintzeko tratamendua egingo dute San Rokeko pasabidean

Euri edo izotzarekin oso labainkor geratzen dira egurrezko zorua. Hori dela-eta, aurrez Kultur Etxe atzeko zubian egin zuten moduan orain ez labaintzeko tratamendua eman dute Lerungo zubian. Bihar, urriak 12, anbulategiaren parean dagoen igogailuaren goialdeko pasabidean emango dute tratamendua eta igogailua eta zubia itxita egingo dira egun osoz.

## Lidergoari buruzko ikastaroa antolatu du Haizea elkarteak

Haizea elkarteak eta Emakundek antolatuta, *Lidergoia eta errealtatea* eraldatzen hitzaldia izango da urriaren 17an Usetxeko eskoletan, 17:00etatik 19:00etara. Eskar Larrinaga izango da hizlaria eta norbaitek informazio gehiago nahi izanez gero, Pitxintxu dendan jaso dezake horren berri.

## Jose Miguel Gorriti San Migel jaietako zozketan saridun

Aiastiako San Migel jaietan txahala zozketatu zuten urtero egin ohi duten moduan, eta agertu da jada saritutako txartelaren jabea. Jose Miguel Gorriti da saritua, baina, etxera txahala eraman beharrean dirua eraman du: 1.300 euroko saria jaso du, txahalak balio duena dirutan.



# Euskara, garenaren arrazoia

**Euskararik gabe ez garela zioen Gotzon Garatek. Izatekotan, euskararekin izan behar ginela, eta horixe berretsi zuten zapatuan, Elgoibarren, 'Euskara ala ez' ziklora batu ziren kulturgileek. Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udalak antolatutako zikloa, IMH eta Danobat Groupen babesarekin, eta Euskal Herriko hamaika bazterretatik etorritako euskaltzale eta kultura zalez bete zen IMHko areto nagusia; 120 bat lagun guztira. Han entzundako lerroburen laburpen bat duzue hau, hitzaldien kronika osoagoak eta gainerako emanaldien ikus-entzunezkoak luze gabe zintzilikatuko ditugulako [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean eta [www.euskaraalaezka.eus](http://www.euskaraalaezka.eus) atarian.**

- ANARA ARGOITIA -

**D**eigarria zen Gotzon Garateren euskalduntasuna. Hamar hizkuntza menperatzen zituen, baina arnasa euskaraz hartzen zuen. Berak idatzia da *Euskara ala ez* ere, euskara barik ez garela esateko, eta bere omenez antolatutako hamar urtez izen bereko zikloa Elgoibarko Izarrak eta Udalak. 2009an egin zuten estreinakoa, herriomenaldi formatoan, eta geroztik, itzal handiko pentsalari eta kulturgileak ekarri dituzte Elgoibarrera urtero-urtero; 40tik gora guztira. Elgoibarren izan dira, esaterako, Xamar, Jon Sarasua, Andoni Egaña, Anjel Lertxundi, Anari, Mikel Gorrotxategi, Joseba Asiron, Asisko Urmeneta, Kike Amonarriz, Lorea Agirre eta Unai Iturriaga, Eñaut Elorrieta, Xan Aire, Antton Luku eta Miren Artetxe, Mixel Etxekopar, Aire ahizpak, Ederlezi pastoralak, Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi, Gotzon Barandiaran eta Rafa Rueda, Mari Luz Esteban, Idurre Eskisabel, La Basu-Anegurak eta Raquel Koroma. Hamaika gai ekarri dituzte horiek denek, baina helburu batekin beti: elgoibartarren eta inguruko euskaltasuna hauspotzea.

Aurtengoa, nolahi ere, ezberdina izan da. Estreinako aldiz, egun osoko zikloa izan da, eta euskal kulturako hogeireferentek parte hartu dute bertan, bakoitzak ondoen dakien hori egiten. Egitarauaren parte handiena IMHn gauzatu zen, baina Kultur Etxeko sotoan eman zioten azkena *Euskara ala ez* zikloari, Amoranteren kontzertuarekin. Tartean, hamaika gogoeta eta dozenaka galdera egin zituzten kulturgileek eta gogotik eskertu zuten publikoak. Antolatzaileek eurek ere aitortu dute, gustura, oso gustura, daudela izandako erantzunarekin.

Hogeireferentek izan ziren gonbidatutako kulturgileak, baina etxekoei eman zieten antolatzaileek zikloa hasteko ardura. Uxue Alberdik *Euskara geu gara* poema errezitatu zuen, Aitor Nova musikaria



lagun hartuta, eta poemaren azken bi lerrotan jaso zuen Alberdik zikloaren muina izango zena: "Euskara ez bada, ez gara. Euskara geu gara". Gero etorri ziren hizlari guztiek argi laga zuten diglosia linguistikoak kulturala dakarrela: hau da, kulturaren arazoak euskararenak direla, eta alderantziz, eta ez dagoela euskal kulturaren azterketarik egiterik, inguruko hizkuntzetako beste kulturak aztertu barik.

Kulturaren ezaugarriak eta euskara erdigunean ez dutenei euskal kulturaz esaten zaizkienak; hizkuntza diglosiaren eta diglosia kulturalaren ajeak; ertzekoa izatearen paradoxikoa; transmisiorako gabeziak; kulturaren berezko beharrak; kultur kontsumoa; sortzaileek bizi duten prekaritatea eta kulturarentzako laguntasun apalak; instituzioen eta herrigintzan diharduten arteko harremanak eta autodeterminazio kulturala... dozenaka gai jarri zituzten mahai gainean, nor bere erara, baina ia-ia ezinezkoa denez hori guztia orrialde gutxi batzutar ekartzea, eta are gutxiago, gonbidatuek erabili zituzten formato ezberdinen ezaugarriak mantenduta, Gotzon Barandiaranen sarrerakoan, Lorea Agirre kazetari eta antropologoak egindako egoeraren diagnosian eta Gorka Arresek eskainitako hitzaldian jarri dugu argia gaur. Gainerako zertzelada batzuk ere jaso ditugu, jakina, baina testu osoagoak eta ikusentzunezko materiala edizio digitalerako laga ditugu, Internetek, gaur gaurkoz, ez duelako espazio mugarik ezartzen.





Gotzon Barandiaran

## Izatea, nortasuna eta transmisioa

**K**ultura eta hizkuntza dira euskaldunoi izateko motiboa ematen digutenak. Kulturagileek behin eta berriz azpimarratuko zuten ideiarekin hasi zuten Gotzon Barandiaranek bere tartea. Eta "asko sortzen dugu eta kalitate itzelezkoa" esa-

nez eskertu zuten euskal sortzaileen ahalegina. Bainak ere aipatu zituen, hala ere. Batetik, euskaraz asko eta ona sortu arren, euskaldun askok nahiago dutela erdarazkoa, eta bestetik, kultura eta hizkuntza izan arren euskaldunok aparteko egiten gaituztenak, "aisialdi, luxu edo garai onetarako zerbeit bezala" ikusten dugula sarri kultura. "Kultur krisia ez da azken hamarkadetan bizi izan dugun krisi ekonomikoak baino txikiagoa, eta herri gisa dugun etorkizuna dago jokoan", ohartarazi zuen.

Euskal kulturaren arazoa "estrukturala" dela esan zuen, eta egoera horri aurre egiteko modu bakarra euskal kulturaren ekosistema osatzen duten eragileen arteko auzolana, elkarlana eta sinergia direla zehaztu. "Gaixo" ikusten du kulturaren ekosistema eta "katarro" horren eragile nagusienetakoa erakunde publikoak gobernatzeko dituzten alderdi politikoen eta kulturagintzaren ekosistemako gainontzeko eragileen arteko "harreman gatazkatsua" dela uste du. Gatazkatsua, hein handi batean, alderdi politikoei hartu dutelako gidaritzza, sarri kulturaren ekosisteman beste eragile bat gehiago direla ahaztuta. "Eskumen sano garrantzitsuak dituzten eragileak dira politikoki, ekonomiki eta juridikoki, zalantza barik, baina beste eragile bat dira eta ezin dute inork aitortu ez dien gidaritzza hartu, ezpada kultur ekosistema osatzen dugun gainontzeko eragileok gidaritzza airtortzen diegulako".

"Eragile guztiei" batzeko deia egin zien Barandiaranek, euskal kulturarentzat estrategikoa zer den proposatu, eztabaiatu, adostu eta gauzatzeko. "Artikulatu gaituzten. Batzuetan auzolanean, bestetan elkarlanean, sinergian beti". Bere esanetan, euskararen herria hiru administrazioetan zatituta egotea da euskal kultura normalizatzekeo dugun "oztopo gaingidagaitzetako bat", eta biziraupenerako ezinbestekoa ikusten du estatu ikuspegiarekin jokatzeko. "Kultura ere politika delako, politika kulturagintzarako baliatu behar dugu, ez etekin politikoetarako".

Kulturagintzak dituen premia larrienak ere zerrendatu zituen. Premia handiena, hauxe: zaleak sortzea. "Gure arazoa euskaldunak euren kulturara ekartzea da". Barandiaranen ustetan,

sortzaileak izango diren zaleak behar ditu euskal kulturagintzak, amateurrek nahiz profesionalak, herri ekimenetan nahiz erakunde publikoetan arituko direnak. "Kulturagintzaren industriari emanak biziko diren profesionalak" bihurtuko diren zaleak behar ditu eta euren inguruan transmisioa bermatuko duten zaleak. Transmisioa. Sortutakoa ikusgarri egitea. Horra gerora sarri entzungo genuen beste premia bat; horra erronka bi.

### 'Euskara ala ezkara' webgunea



Kristina Zuazubizkar, Iñaki Konde, Ane Beitia, Gotzon Barandiaran, Imanol Larrañaga eta Andrea Arriola.

Hain zuzen ere, bi erronka nagusi horiei erantzuten die Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak sortu berri duten [www.euskaraalaezkara.eus](http://www.euskaraalaezkara.eus) webguneak. Digitalidadea enpresak sortu du webgunea, enkarguz, eta ataria garatu duen enpresako teknikari da Gotzon Barandiaran bera. Haren esanetan, Internet da gaur kulturagintzaren sozializazioan paradigma aldaketa erabatekoa dakarrena, eta horregatik, sortutako kultur ondarea bildu, antolatu eta eskuragarri jartzeko egindako ahalegina eskertu zien atariaren sustatzaileei.

Webgune horretan *Euskara ala ezkara* zikloak hamar urtean eman duena jaso dute eta baita Gotzon Garateri buruzko informazioa ere. Idatzizko zein ikus-entzunezko edukiak jaso dituzte, eta ataria bera edozein herritarrek erraz erabiltzeko moduan sortu dute. Astelehenean aurkeztu zuen Barandiaran berak webgunea Elgoibarko Kultur Etxean. Aurkezpenean, Ane Beitia alkateak, Andrea Arriola Kultura zinegotziak, eta Kristina Zuazubizkar Euskara teknikariak parte hartu zuten Udalaren izenean, eta Elgoibarko Izarraren izenean, Iñaki Konde presidenteak eta Imanol Larrañaga elkarteak kultur dinamizatzaileak.

## Kulturgintza, gugintza



Lorea Agirre

Autore eta pentsalari askoren aipua baliatuta, kultura, kulturgintza eta gugintzaren gaineko ideiak lotu eta galdera pertinente ugari egin zituen Lorea Agirrek zapatuan. Askok bezala, kulturarik gabeko herririk ez dagoela esanez hasi zuen hizketaldia, edo nahiago bada, kulturarik gabe herririk ez dagoela azpimarratuz, eta salatu zuen kulturari balio gorena aitortuta ere, praktikan, elementu dekoratibo gisa erabiltzen dela sarri.

Agirrek zehaztu zuen euskara dela euskal kulturaren sistema-adierazle nagusia eta kulturgintzak baino ez duela batuko gaur "atomizaturik" dagoen euskal nazioa. Bestera esanda, euskaraz egiten dugun dena dela euskal kultura, "egunero bizitzeko balio digun hori dena", eta herrigintza edo nazioigintzarako dugun bi-

tarteko bakarra dela. Beste kontu bat da, baina, gure artean bizi diren elebarkarrei edo kanpotik bisitan datozenei euskal kulturaz esaten dieguna: "Turismo bulegoetan, euskal kultura gastronomia da; paisaje naturalak dira, normalean belaze berdeak eta itsaso urdina; hiria da, Guggenheim da. Kanpora zabaltzen duguna hizkuntzarik gabeko kultura da, gero eta gehiago".

### Asmatua, anitza eta ideologikoa

Euskal kultura geuk sortua dela esan zuen, "asmatutakoa", eta ez dela berez esentzialista, baina esentzial bihurtu behar dugula, "bizi irauteko borrokan gaudenok" esentzialismoak behar ditugulako. Jakina, asmatua den heinean, aldakorra da euskal kultura, eta anitza ere bada. Anitza da, "gaur eta hemen euskal kulturak baino ez duelako bermatzen beste hizkuntza eta kulturen aniztasuna", eta "lokaztua, nahastua eta kutsatua" izan behar du, hemen bizi garen guztiok, edo bederen, nahi dugun guztiok kabitu behar dugulako. "Ezin da Goierritik bakarrik ulertu; Barakaldotik ere ulertu behar da".

Gehiago ere badela zioen, baina. Euskal kultura ideologikoa dela, alegia, eta euskarekiko konpromisoarekin eta engaiamenduarekin duela zerikusia ezinbestean, beste kultura batzuetan ez bezala, gurean gure buruaren erreproduzioa eta zabalkunde eten-gabekoa ez dagoelako bermatua; azken batean, "gurea beti dagoelako zalantza": "Edo ideologikoa da edo gureak egin du. Edo bestela, hegemonia lortu behar dugu, eta lasai bizi".



Harkaitz Cano



Mursegok

Beharra balego bezala "asko sortzen dugu eta kalitate itzelezkoa", gogoratu zuen Gotzon Barandiaranek zapatuan, eta zalantza txikiena ere uxatu zuten gure sortzaileetako bik, Harkaitz Canok eta Maite Arroitauregi Mursegok, amaren batean. Azken aurreko manifestua izenburuko testua errezitatu zuen Harkaitz Canok. Umoretik jo zuen Canok euskararen inguruko egiak bistartzeko, eta gogotik eskertu zuen publikoak. Zuzentzaile automatikoak esan nahi zuena esaten lagatzen ez zionaren paperean aritu zen Cano, dotore eta fin, eta barre-algaraka jarri zituen entzuleak. Ariketa bat ere proposatu zuen, grazia handiz proposatu ere: "Euskara galtzen bada, euskara ez dakitenek 100 hitz eder ikasteari uko egin diotelako galduko da", esan zuen, eta ariketa proposatu gero: "Ikas ditzagun urtebetean 100 hitz elebarkar. Ehun hitz sarea ehuntzeko". Goizeko perla laga zuen lasartarrak, bere ahotsean entzun eta ikustea eskatzen duen harribitxia. Eta beste perla batekin ekin zitzaion arratsaldeko saioari. Mursegoren edozerk bestera ezin duen bezala, berezia izan zen arratsaldekoa ere. Musika, antzerkia, umorea eta ironi-dosi handiak batu zituen artista eibartarrak, eta txalotu zuen publikoak. Euskaldun izatea zein nekeza da azaldu zuen Mursegok euskara ikasten ari den argentinar baten azalean jarrita, eta azkeneko urteotan erakunde publikoek nahiz bestelako eragileek euskara sustatzeko egin dituzten hamar kanpaina aletu zituen. Canoren manifestuaren lehen parte eta Mursegoren emanaldia ikusteko: [barren.eus](http://barren.eus)

Diglosia kulturalaz ere luze hitz egin zuen. Diglosia ekosistemaren parte dela esan zuen eta ezin dugula euskal kulturaren azterketa bat egin, inguruko hizkuntzetako beste kulturak aztertu gabe eta horiekiko harremanak kontuan hartu gabe. "Emakumeen eskubideez hitz egiten dugunean, edo hitz egiteko ere, gizonen pribilegioez hitz egin behar da. Bada, gauza bera da. Hitz egin behar da desberdinkeriaaren arrazoiez eta egiturez".

Minorizatu da gure kultura, baina ertzekoa izateak bere alde on eta ilunak ditu. "Leku paradoxikoa da minorizatuarena". Batek, ajeak ekartzen dituelako: "Hizkuntza minorizatu izanda, kultura minorizatu sortzen dugu". Horren harira ohartarazi zuen munduko hizkuntza guztiek ibiltzen zituzten lau urratsak (ezagutza, erabilera, nortasuna eta lurraldea) osagarri izan direla orain arte, baina orain, elkarrengandik aldentzen ari direla eta horrek kultura estrategia bat garatzea eskatzen duela, herri gisa iraungo bada: "Gaur arte pentsatzen genuen euskara ikasiz gero, erabiliko genuela eta erabiltzeak izate bat emango zigula eta nor izate hori talde bati edo lurralde bati lotua zegoela beti. Baina, orain, aldatzen ari da hori". Bestetik, periferikoa izateak abantailak ere baditu, besteak beste "begirada kritiko bakarra" periferian dagoelako eta horrexegatik "ahalduntzeko eta eraldatzeko leku bakarra" periferia delako. "Euskaraz egiteak baditu bestelako inplikazioak, kultura hegemonikoak ez dituenak: galga bat jartzen zaio globalizazioari, globalizazio uniforme eta uniformatzaile horri aniztasuna ekartzen zaio, eta oxigenoa hegemoniari".

### Autodeterminazioa, kontsumoa eta transmisioa

Ekonomikoki buruaski izan ezta ere, kulturalki buruaskitasunez jokatzeko, nazio bat bezala jokatzeko, posible ikusten du. "Aspaldian egiten da". Eta hori, sortzaileek aspaldian egiten duten hori, babesteko eskatu zien erakundeei; sinisteko sortzaileengan eta sortzeko kulturarentzat estatu ituna. "Kultur sormenezko edozer argitaratzen denean, ezin dut esker ona besterik sentitu hori sortu duenarekiko. Eskuzabaltasun ariketa ikaragarria da haiena. Sartutako orduak eta guri emandako lan hori nola ordaintzen diegu, baina? Uste dut ez dela pagatzen". Prekarietatearen gaia ekarri zuen Agirrek ere, zikloan hari nagusietako bat izan zena.

Plazaz eta plazan jarri beharraz ere aritu zen, horixe delako, bere ustez ere, gure kulturak duen gabezi handienetako bat: sortutakoa ikusgarri jarri ezina. Eta gogoeta bat ekarri zuen: "Transmisioa ez da bakarrik eskolan euskara eta literatura ikasgaia ematea eta ezta ere, ziurrenik, ematen den moduan ematea. Sortzeko grina sortzea da transmisioa". Plazaren neurriaz hitz egiteko, Siadecok egindako ikerketaren emaitzak baliatu zituen. Bi nabarmendu zituen: euskarazko liburuak eta musika kontsumitzen dugunon multzoa 190.000 lagunek osatzen dugu. Hau da, 16 urtetik gorako euskaldunen %25ak. Eta horietatik merkatuari fidelen eusten diotenak 40.000 dira (euskaldunen %5a). "Beraz, gutxiegi gara, baina asko dugu irabazteko. Asko egin dugu, baina ez da aski. Egiten dugun urrats bakoitzak urrea balio du geure buruaren izatean, izan nahi duguna, ziurtatzen duelako".

## Prekarietateari galga, kulturari arnasa

Euskal sortzailea izatea "milagro" bat zela esan zuen Lorea Agirrek, eta Eildorek hitz egin zuen urte askoan Susako editorea izandako Gorka Arresek ere zapatuan, ohikoa duen estiloan, argi eta zorrotz, behar direnak baino berba gehiago erabili barik. Kulturak pairatzen duen prekarietateaz ohartarazi zuen, sortzaileek jasotzen duten ordain eskasaz eta urratzen zaizkien eskubideez, eta Shakespeareren *Hamlet* antzezlan klasikoko protagonistak egiten zuen galdera bera egin zuen: "Nork ematen die jaten antzerkilariei?".

Ahoan bilorik gabe jardun zen berbetan, eta datu argigarriak eman zituen bere tesia arrazoitzeko. "Liburu bategatik normalean bi euro eramaten ditu idazleak. Urtean 38.000 euroko soldata egiteko (Susako editorea zen garaian urtean berak jasotzen zuena), 19.000 liburu saldu behar ditu. Ezinezkoa. Bertsolariei gauza bera gertatzen zaie. Bertsolari batek saioko 200 euro irabazten baditu, urtean 38.000 euro egiteko, egun batean bai eta bestean ez kantatu behar du. Lotsagarria da. Idazleek, bertsolariek, antzezleek, musikariek... ez dute soldata duinik". Sortzaileek eskatzen duten horren kontzientzia hartzeko eskatu zuen. "Kulturaren alorreko sortzaileak langileak dira. Eskubide sozialak daukate; beraz, eskubide laboralak, juridikoak, politikoak eta moralak dituzte, eta gainerako langile guztiek eskatzen dutena eskatzen dute: eskubideen errespetua eta ordain duina". Sortzaileen eskubidea errespetatu eta aintzatesteaz gain, kultura gizartearen erdigunera ekarri behar dela esan zuen, denon artean bazterrerara desplazatu dugula arrazoituta, eta ohartarazi zuen kultura lehen lerrora ekarri ezean, sekula ez garela herri modernoak izango. Bere aurrekoek esan bezala, herria kulturak definitzen duela nabarmendu zuen; kulturak ematen dizkiola izaera, nortasuna eta gogoia herriari.

Sektorea ondo ezagutzen duenaren talaiatik aritu zen Arrese, kulturarentzako duintasun eskean, eta duintasunaren izenean, kulturaren langileen oraina eta geroa estrukturalki babesteko eskatu zien agintariei eta hasteko "behingoz" Kulturaren Legea idazten. "Egoera tamalgarri honi erantzuteko ez da aski borondatea. Behar dira erantzukizun sozialak, itun politikoa eta batez ere, aliantzak".

Gorka Arrese





Uxue Alberdik *Euskara geu gara* poema errezitatu zuen, Aitor Nova lagun hartuta, eta poemaren azken bi lerrotan jaso zuen zikloaren muina: "Euskara ez bada, ez gara. Euskara geu gara".



Sortzaile gazteen ezinez eta ilusioez aritu ziren Paul Beitia, Peru Iparragirre eta Edurne Azkarate *Gazteak, kultura eta euskalgintza* izenburuko mahai-inguruan, Itziar Ugarteren gidaritzapean.



Ander Lipus antzezlea eta Oier Guillan kazetari eta antzerki-kritikaria elkarri galdezka jardun ziren *Antzerkia euskaratik eta euskaraz* gai hartuta.



Ines Osinalde musikaria eta Odei Barroso bertsolari eta musikaria musika eta euskal kontzientziatzaz solastu ziren. Musikaren munduan ertzekoak izatearen ajeez aritu ziren, elkarriketa formatoan.



Txakur Gorria kolektiboko Ane Labaka eta Nerea Ibarzabalek egunak eman zuenaren laburpena egin zuten bertsoan, eta egun osoz muralgintzan aritu ziren Malen Amenabar eta Mariñe Arbeo.



Iban Urizar *Amorantek* eman zion azkena aurtengo *Euskara ala ezkara* zikloari, Kultur Etxeko sotoan eskaini zuen emanaldia-rekin.

Atxutxiamaiak LH 4, 5, 6. mailetako umeentzat eskaintzen duen proiektua da 'Aldenik alde'. Euskara, parte-hartzea, hezkidetzeta eta inklusioa lantzen dituzte, baina umeen parte-hartzea askoz ere aktiboagoa da. Berbaldixa deitzen dituzten bileretara beren ideiak eramatean dituzte umeek, egin nahi lituzketen gauzak proposatzen dituzte bestera esanda, eta hezitzaileen laguntzarekin antolatzen dituzte aisialdiko ekintzak. Aurtengo lehen txanda urriaren 21ean hasiko da, eta Ludotekan egingo dute berbaldixa, 17:00etan.



## ► 'Aldenik alde': umeak, beren aisialdia antolatzen

**ANDER OSORO CASQUERO**  
26 urte, koordinatzailea

Proiektuko koordinatzailea da Ander Osoro eta bere umezarotik gauzak ikaragarri aldatu direla dio. "Lehen, dena antolatuta egoten zen eta parte hartu nahi genuen ala ez erabakitzea mugatzen ginen gu". Orain, baina, gaztetxo-eei ematen zaie zer nahi duten erabakitzeko aukera eta hori gauza handia dela dio.

Orain arte oporraldietako eskaintza baino ez da egin, baina iaz hasi ziren urte guztirakoarekin. "Orain hiru denbora-tartetan banatu dugu ikasturtea: Gabonak bitartekoa, urtariletik martxora artekoa eta Aste Santu ostea. Izen-emateak bloke bakoitzaren hasieran egingo ditugu, baita bilerak ere". Hiru hezitzaile eta koordinatzaile bat daude, eta 30 lagun inguru dira prestakuntza lanetara eta ohiko ekintzetara joaten direnak; ekintza berezietara, berriz, 50. "Bi asteburuan behin egingo ditugu ohiko ekintzak eta irteera berezietarako datak, lekuak eta zer egin taldean erabakiko ditugu. Etorri ezin dutenek, lagunaren artean hitz egiten dute aurrez. Aniztasun handia dago, eta denak asetzen saiatzen gara".

**PAULE SOTO OROZKO**  
10 urte, parte-hartzailea

Orain arte gaztetxoek egin dituzten ekintzen aukera zabala da oso: kanpora lo egitera joatea, mendian altxorrenen bila jardutea, Maalan marraztea edo herriko gune ezberdinetan jolastea. "Nik Aldenik alden-en parte hartzen dut, batik bat lagunekin ibiltzeko eta kanpora lo egitera joateko". Bileran proposatzen dituzte ideiak gaztetxoek eta bozketa bidez erabakitzen dute gero zein aukerari heldu. Atxutxiko ekintzetan ibilitakoak dira, baina Aldenik alden gehiago parte hartzen dute. "Begiraleekin egoteak aukera ematen digu lagun artean gehiago elkartzeko. Ohiko jardunetan banatuta egoten gara Herri Eskolakoak eta Ikastolakoak, eta proiektu honek aukera ematen digu ekintzetan elkartu eta lagunak egiteko".

Aurten oraindik ez dute proposamenik egin, baina gauza bat eskatzen dute denek: Beldur gaua. "Beldurra pasatu arren, denoi gustatzen zaigu susto bat jaso eta gaua elkarrekin igarotzea". Ikastolatik Aubixa ezagutzen dute eta datorren urtean Zuatzara joango dira. "Iaz oso ondo pasatu genuen Zarautzen eta joan nahiko genuke berriz".

**MARIA OROZKO SODUPE**  
40 urte, gurasoa

Guraso askorentzat sorpresa izan da Aldenik alde egitasmoa. Iazkoak ezustean hartu zituen. Orain, ordea, ezagutza handiagoa da eta positiboki baloratzen dute. Pozgarria zaie umeek autonomia izatea lagunekin joateko. "Askotan gurasook ekintza zehatzetara bideratzen ditugu, baina orain, lagun artean erabakitzen dute zer egin, eta gogoz gainera. Ez zeuden ohituta beraiek aukeratzera eta honek jolaserako ezezik, antolatzen ikasteko aukera ere ematen die".

Bestalde, lehen beti lagun berberekin ibiltzen zirela uste dute gurasoek eta orain ume gehiago ezagutzen dituztela. "Horrek zabaltzeko aukera ematen die". Hautzarotik nerabazarorako salto horretan umeek antolakuntzan ere parte hartzea eskatzen dute, eta proiektu hau eskertzen dute gurasoek. "Lehen adin honetan erdibidean gelditzen ziren ez zeukatelako bakarrik ibiltzeko aukerarik. Orain, ordea, proiektu honek autonomia apur bat emango die. Umeak beti daude gurasoengandik aldentzeko eta lagunekin elkartzeko prest".

## 23 lagunek hartu zuten parte Mendaroko margo lehiaketan, tartean bi mendaroarren

J oan den larunbatean izan zen Mendaroko XXIII. aire libreko pintura lehiaketa. Belauntza, Ermua, Elgoibar, Medard (Frantzia), Bilbo, Artziniega, Leaburu, Ibarra, Gasteiz eta beste hainbat herritatik etorritako 23 margolarik hartu dute parte, eta haiekin batera bi mendaroarren.

Epaille lanak Aitor Etxeberriak eta Aitor Sarasketak egin zituzten eta hauek saritu zituzten: 14 urtetik gorakoetan, Eduardo Alsasua, Esteban Oroz eta Lucio Fernandez hurrenez hurren, eta 14 urtetik beherakoetan, lehena Lea Lazarobaster eta bigarren Irati Etxegoin.

Lanak, urriaren 12tik 21era egongo dira ikusgai Lagun Beti-koaren lokal zurian, ostiral, larunbat eta igandeetan. Orduetgia: 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.



### Aitor Etxeberriaren tamaina handiko eskultura bat ipini dute Lanzaroten



Lanzaroteko Nautilus artista-egoitzaren kanpoaldean jarri dute Aitor Etxeberria margolari eta eskultore mendaroarraren tamaina handiko eskultura bat. Haize-errota bat dago egoitzaren ondoan, eta errotekin zerikusia zuen eskultura bat kokatzeko leku interesgarria iruditu zitzaion artistari. Errotariaren ideiarekin jolas eginez sortu du obra, eta forma okerrak eman dizkio obrari bizitasuna emateko.

### Mertxe Sueskun artistaren lanak izango dira ikusgai Kultur Etxeko erakusketan



*Edukizailleak, edukiak eta beste kontu batzuk izeneko erakusketa ipini du ikusgai Elgoibarko Kultur Etxean Mertxe Sueskun Martinez eskultoreak, eta urriaren 20ra arte egongo da ikusteko aukera. Birziklatutako materialekin (orrazi, hari-mataza, kaxa, kotoia...) egindako lanak dira Sueskunenak. Erakusketa gela asteleheneetik larunbatera egongo da zabalik, 18:30etik 20:30era.*

## Abarketak egiteko tailerra izango da Mendaron urriaren 20an

Mandira Studiok abarketak egiten ikasteko lau orduko tailerra antolatu du urriaren 20rako. 10:00etatik 14:00etara izango da, Mandiraren Andoneikua, 6ko lokalean. Zolak eginda izango dituzte eta gainontzekoa josi beharko dute. Josteko, baina, ez da aparteko jostintza ikasketarik izan behar; atzera-puntadak egiten eta albaintzen jakinda nahikoa da. 16 urtetik gorakoentzat da ikastaroa, oihala zolara josteko indarra behar baita. 65 euro ordaindu beharko dira eta izena ematen dutenei materiala emango diete, bai egunerako bertarako eta baita gerora etxean egin ahal izateko ere. Bezperara arte eman ahal izango da izena (650 988 799, Marian), baina kopurua mugatua izango da. Hala ere, interes handia balego, aurrerago beste bat antolatuko dutela aurreratu dute.

## Gipuzkoako Ehiza Xeha Txapelketako txapelak Elgoibarrera eta Mendarora

**E**lgoibarko eta Mendaroko ehiztariek erakustaldia eman dute 2018ko Gipuzkoako Ehiza Xeha Txapelketan. Zambranako (Araba) *El Castillo* ehiza barrutian jokatu zen txapelketa urriaren 7an, eta Debabarrenako txapelketako emaitzak errepikatu ziren Gipuzkoakoan. Senior gizonezkoetan Arkaitz Egaña gailendu zen, 9 eper, faisai bat eta 3 galeper ehizatuta. Bigarren sailkatuak baino 2.000 puntu gehiago lortu zituen birritan Espainiako txapeldun izan den ehiztari elgoibartarrak. Iazko Gipuzkoako txapeldun Carlos Conde elgoibartarra sailkatu zen bigarren postuan, 6 eper eta 2 galeper ehizatuta. La Union elkarteko bi ehiztarien atzetik sailkatu zen Aiako Larra-Txori elkarteko Iñigo Azpiroz, 6 eper eta galeper batekin. Anaiaren antzera, alde handiarekin gailendu zen Leire Egaña emakumezkoetan. Zazpi eper, faisai bat eta galeper bat ehizatu zituen. Tolosa ehiza taldeko Maria Jose Carreterok eskuratu zuen bigarren postua, eper bat



eta txakurrak jasotako galeper bat aurkeztuta. Ehiztari beteranoen artean, Kilimon Zahar elkarteko Mauro Gonzalez mendaroarrak irabazi zuen Gipuzkoako txapelketa. Sei eper ehizatu zituen. La Union elkarteko Joxe Mari Egañak hirugarren egin zuen bost eper ehizatuta.



### Idotorbeko igoera jokatuko dute bihar

Idotorbeko aldapa pikoetan agurtuko dute denboraldia txirindulariek. Zikloturistentzako Julian San Juanen Oroimezko 27. San Pedroko igoera jokatuko dute bihar, urriak 12. Irteera 12:00etan izango da Kalegoen plazatik eta 3,8 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute Idotorbe gainearaino. Iker Eskibekek (Eskoriatza, 1993) dauka probako errekorra: 13 minutu eta hamazazpi segundo. Iaz ezarri zuen.

### Iñigo Larizek hirugarren postua eskuratu du Anbotoko Kilometro Bertikalean

Guztira 217 mendiko korrikalarik hartu zuten parte Anbotoko Kilometro Bertikalaren 11. ekitaldian. Lasterketa bertikalean erreferentea da Atxondoko bailaran jokatzen den proba eta espezialitateko antxixikari puntakoenak batu ziren aurten ere. Gizonezkoetan Iñigo Alzola arrasatearra gailendu zen (40:04). 25 segundo gehiago behar izan zituen Xabier Macias iruñearrak. Iñigo Lariz elgoibartarrak eskuratu zuen hirugarren postua, 40 minutu eta 43 segundoko denbora eginda, irabazleak baino 39 segundo gehiago. Emakumezkoetan probako errekorra txikitu zuen Oihana Azkorbebeitia korrikalari abadiñarrak, 45:59ko denbora eginda. Maria Zorrozak egin zuen bigarren (47:15) eta Oihana Kortazar bera sailkatu zuen hirugarren postuan (47:21). Ainhoa Lendinez elgoibartarra seigarren postuan sailkatu zen (53:37).



**LANA.....****Eskaerak**

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest. Etxeko langile moduan, orduka edo gauzez.

☎ 631 891 709

Garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest.

☎ 651 479 142

Umeak edo adinekoak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan edo orduka.

☎ 631 756 284

Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Erreferentziak dauzkat eta berehala hasteko prest nago.

☎ 680 103 356

Adinekoak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Arratsaldez. Erreferentziak dauzkat.

☎ 646 821 678

Edozein lan egiteko prest nago, baita etxeko langile modura ere.

☎ 631 556 507/ 602 193 095

Lan egiteko prest nago. Adinekoak zaintzen esperientzia handia daukat.

☎ 631 822 545

Adinekoak eta umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan edo orduka.

☎ 631 870 767

Adinekoak eta umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan edo orduka.

☎ 632 699 477

Adinekoak edo umeak zaintzen zein etxeko garbiketetan lan egiteko prest. Egun osoz edo orduka.

☎ 642 313 078

Adinekoak zaintzeko prest. Orduka zein etxeko langile moduan.

☎ 642 313 055

Adinekoak zaintzeko prest. Orduka zein etxeko langile moduan.

☎ 642 811 251

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Esperientzia handia daukat.

☎ 642 313 884

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Esperientzia daukat.

☎ 655 435 136

Adinekoak zainduko nituzke. Etxe, lan-tegi edo komertzioetan garbiketa lanak egiteko ere prest nago. Esperientzia handia daukat.

☎ 631 790 555

45 urteko emakume elgoibartarrak goizez etxeak garbituko lituzke.

☎ 636 223 142

Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Astebukaeretan ere lan egiteko gertu.

☎ 632 239 398

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest nago. Etxeko langile moduan zein orduka.

☎ 631 558 243

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan eta orduka jarduteko gertu.

☎ 612 476 921

Etxebizitza, lokal edo komertzioak garbitzen edo adinekoak eta umeak zaintzen lan egiteko prest. Asteburuetan edo orduka jarduteko gertu.

☎ 631 532 426

Umeak edo adinekoak zainduko nituzke, baita garbiketa lanak egin ere. Astebukaeretan ere prestutasun osoa.

☎ 688 738 823

Adinekoak zaintzeko prest egongo nintzateke. Esperientzia handia daukat barrietan eta obretan lan egiten.

☎ 674 579 736

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 632 088 084

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo baita etxeko langile moduan ere.

☎ 605 196 917

Adinekoak zainduz eta garbiketa lanetan aritzeko prest.

☎ 643 464 072

**Eskaintzak**

Akademia batean, maila guztietan ingeles eskolak emango lituzkeen pertsona baten bila gabiltza. Interesatuek bidali curriculum-a. [ikasgoakademia@gmail.com](mailto:ikasgoakademia@gmail.com)

**ETXEBIZITZAK.....**

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ 646 390 826

**KINTO OSPAKIZUNAK.....**

1980an elgoibarren jaiotako edo eta hemen bizi direnen kinto-ospakizuna egingo dugu urriaren 27an. Izena eman nahi dutenek urriaren 13a baino lehen Laboral Kutxako ES62 3035 0007 26 0071135636 kontuan 60 euro ingre-satu beharko dituzte. Animatu!

1978an jaiotako elgoibartarrek kinto-bazkaria egingo dute urriaren 20an. Ospakizuna Belaustegi jatetxean izango da. Joan-etorriako autobusa ipiniko dute. Izena emateko azken eguna: urriak 11. Interesatuek 65 euro sartu behar dituzte Laboral Kutxako kontu korronte honetan, izena eta abizena zehaztuta: ES74 3035 0007 2600 71136002

**ESKOLA PARTIKULARRAK.....**

Gitarra elektrikoko klase partikularak ematen dira. Ume eta helduentzat. Gitarra elektrikoan eta magisteritzan graduatua. Esperientziarekin.

☎ 688 718 170

**administradores**  
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Federación Española Administradores Inversores Económicos



**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**

*Etaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)**

**Gure komunitatean obrak egin behar ditugu teiltuan eta 25.000 euroko aurrekontua onartu dugu. Egin berri dugun batzarrean gehiengoz erabaki dugu banketxe batean mailegua eskatzea. Banketxean eskatu digute etxejabe guztiok sinatzea maileguaren kontzesioa. Baina 10 etxejabeetatik lauk dagokigun kopurua ordainduko dugu mailegua eskatzeko asmorik gabe. Etxejabeen bileran jakinarazi zen maileguaren ordainketa komunitate guztiari dagokiola hainbat etxejabe mailegua eskatu ez arren. Nola jokatu behar dut egoera honen aurrean?**

Eraikin bateko jabeak derrigortuta daude gastu komunak ordaintzera, batez ere guztiei dagozkien elementuen mantenu, konponketa eta zaintzari dagozkio-nak. Baina legeak ez du esaten nola egin behar den ordainketa, ezta nola finantzatu ere. Beraz, etxejabe bati ezin zaio galarazi dagokion diru-kopurua ordaindu eta betebeharretatik kanpo gelditzea.

Zuk diozu, batek ordaindu ezean, banketxeak komunitate osoaren aurka jotzea nahi duela. Eta zuk diozunaren arabera, banketxeak ez du onartzen bakoitza bere zatiaren erantzule baino ez izatea. Horren gainera, ardura solidarioa eskatzen du, hau da, edozeinek ordaindu ezean beste mailegu-hartzaile guztiek ordaindu behar izatea.

Horrela, baliteke etxejabe batek bere zatia ordaintzea eta gero beste etxebizitza bati dagokion zatia ordaindu behar izatea. Beraz, ez da gomendagarria egoera hau onartzea. Hori egin beharko litzateke mailegu-hartzaile guztiek ordainduko duten ziurtasuna izanez gero.






Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Manex**, astelehenean 7 urte bete zenituelako. Muxuak etxeko guztien partez.



Zorionak, **Eneko**, asteazkenean 3 urte bete zenituelako. Etxeko guztien partez, muxu potolo bat!



Zorionak, **Kaiet**, atzo 6 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiako eta bereziki Urkoren partez.



Zorionak, **Gorka**. Zapatuan, 3 urte! Muxu asko familiako eta bereziki Julen, aitiitta eta amonaren partez.



Eta gaur, zorionak, **Luken!** Halako ogitarte-koekin laster Elgoibarko sorgiñak baiño haundixagua egingo zera. Muxu potolo bat.



Zorionak, **Alain!** Astelehenean 5 urte handi bete zenituen! Familia guztiaren partez eta bereziki Naroa, Julen eta Enaien partez.



Zorionak, **Paul**, 7 urte bete dituzulako eta **Ane**, astelehenean 2 urte beteko dituzulako. Muxu handi bana.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



## IKASBAI akademia

**667 261 248**  
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar  
[akademiaelgoibar@gmail.com](mailto:akademiaelgoibar@gmail.com)

- LH
- DBH
- GAI GUZTIAK
- TALDE TXIKIAK
- EUSKARA ERREFORTZUA

R99 133/12

# Uzuri

ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)



**AUDIFONO DIGITAL BERRIENAK**



**Ez da soinu kalitatea bakarrik;  
bizi-kalitatea ere bada**

I. URTEURRENA

*Mari Tere Pedrosa Alvarez de Arcaya*

**Beti izango zaitugu bihotzean.**

Haren oroimenez I.urteurreneko meza izango da, astelehenean, urriaren 15ean, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.



## 11 EGUENA

**19:00** Meditazioa eta jardunaldia: *Buru isilduz*. Gidaria: Jose Cruz Igartua. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzaila: Isiltasun Eskola.

**18:30-20:30** Erakusketa: Mertxe Sueskun eskultorea. Astelehenetik zaptura. Urriaren 20ra arte. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Antolatzaila: Elgoibarko Udaleko Kultura Saila.

## 12 BARIXAKUA

**12:00-14:00/18:00-20:00** Erakusketa: XXIII. Mendaroko Aire Libreko Margo Lehiaketa. Urriaren 12tik 21era. Barixaku, zapatu eta domeketan. Lagun Betikoak ondoko lokalean.

**12:00** Julian San Juanen Oroimenezko 27. San Pedroro Igoera. Kalegoen plazaatik abiatuta.

## 16 MARTITZENA

**19:00** Hitzaldia: *Zure borondatea, zure aukera*. Zer egin gaigabetasun egoera batean? (Aurretiazko borondatea eta erabakitze eskubidea). Hizlaria: Itsaso Gonzalez. Hurkoa Fundazioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailak: Nagusilan eta Ongizate Saila.

## 18 EGUENA

**17:00 eta 17:30** Ipuin kontalaria ingelesez: *Annie Funny. Annie in wonderland, come and see!*. 17:00etan, HH5eko haurrak eta 17:30ean, LH1 eta LH2ko haurrak, Udal Liburutegian. Antolatzaila: Gotzon Garate Udal Liburutegia.

## 19 BARIXAKUA

**17:30** Kiribil. 2 urtetik 6 urte bitarteko haurrentzat. Maalako parkean. Antolatzaila: Elgoibarko Izarra.

**18:30-20:30** Odol ateratzeak. Elgoibarko Odol Emaileen Elkartearen. Osasun Zentro ondoan.

**20:30** Antzerkia: *13 y martes*. Glu Glu produkzioak. Herriko Antzokian.

## Zinea (Herriko Antzokian)



### 'El pacto'

12 Barixakua, 22:15

13 Zapatua, 19:00/22:15

14 Domeka, 19:00

15 Astelehena, 21:30



### 'Hotel Transilvania'

14 Domeka,, 16:30



### 'Bizikidetza plataforma'

(Ongarri)

18 Eguena, 21:30

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
12 BARIXAKUA	13 ZAPATUA	14 DOMEKA	15 ASTELEHENA	16 MARTITZENA	17 EGUAZTENA	18 EGUENA	19 BARIXAKUA
Egunez Yudego	Egunez *Fernandez *Barrenetxea	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Yudego	Iluntzean *Fernandez	Iluntzean *Fernandez	Iluntzean Yudego	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia

\* Fernandez:  
Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gavez: 22:00-09:00**  
La Fuente - Sostoa kalea,10 (Eibar)  
943 254 410

# etxegain

BIZIGUNEA

... ETA ORAIN  
2 LOGELAKO ETXEBIZITZAK

145.000 € -TIK HASITA

## Gorenean

WWW.ETXEGAIN.COM

# elgoibar

2, 3 ETA 4  
LOGELAKO  
ETXEBIZITZAK

TERRAZA ZABALAK ETA  
PERTSONALIZATZEKO MODUKO  
TXOKOAK DITUZTEN BEHEKO SOLAIRUAK

LOGELAK  
10 M<sup>2</sup>-TIK  
GORAKOAK

EGONGELA  
GUZTIAK 20 M<sup>2</sup>-TIK  
GORAKOAK

IKUSPEGI ZABALAK  
DITUZTEN TERRAZA  
HANDIAK GARAIERAN

**etxegain** goi-mailako sustapena duzu. Ikuspegi inbidiagarriaz gozatzeko aukera ematen duen goragune batean, goi-mailako eraikin bati dagozkion materialez egina, eta betiere GRUPO EIBAREK eskaintzen duen zerbitzu-maila gorenarekin, zure etxebizitza pertsonalizatzeko aukera zabalekin.

**etxegain** en prezioak soilik dira baxuak, eta horregatik da goi-mailako higiezin-inbertsioa.



**GE** grupo eibar  
inmobiliario

943 31 66 11

E.: comercial@grupoeibar.com  
San Francisco 32, bajo • 20670 Elgoibar

689 66 08 01

OBRA FINANCIADA POR:

**bankoia**  Groupe  
Crédit Agricole

# Gremioen gida

Aroztegiak  
Elektrizitatea  
Igeltseritza  
Iturgintza  
Leihoak  
Pintura

## ITURGINTZA

**PAGOAGA S.A.**  
BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585  
biende@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com  
BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
taller@pagoagasa.com  
ELGOIBAR

**Fontanería Ibámar**  
ITURGINTZA  
San Roke, 10-A, behea B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
ibamar@euskalnet.net

**ONGI** Iturgintza  
Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxe: 943 254 523  
ongi@ongielgoibar.com  
www.ongielgoibar.com

**TELLABIDE**  
ITURGINTZA  
Azpilgoeta, 7 behea - Mendaro  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062  
iturgintzalellabide@hotmail.com

**SANTANA**  
Igor Santana  
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.  
Urazandi kalea 17, behea  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
santanaiturgintza@gmail.com

## ARozTEGIak

**ASIMA**  
Aroztegia Garpinteria  
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar  
687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225  
asimaaroztegia@gmail.com

**Ulazia**  
ARozTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albituri industrigunea, 1-O/ 1-P  
943 740 547

**BIENA S.L.**  
ARozTEGIA  
Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus  
f

**IMAR**  
ARozTEGIA  
Olaso industrigunea, 17 behea  
943 531 471  
609 064 978  
carpinteriamar@hotmail.com  
f

**iraolagoitia**  
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak  
Kurutz-gain Industriagunea, 9  
20850 Mendaro  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485  
www.iraolagoitia.com

## ELEKTRIZITATEA

**CARRANZA,**  
ELEKTRIZITATEA  
Uparitzaga, 10, 6.B  
Elgoibar  
karranzaj@gmail.com  
Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999

**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.  
Raimon: 677 512 462  
Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR  
Andres: 630 957 345  
Pedro Migel Uruzuno, 14 behea  
20870 ELGOIBAR  
Bulegoa: 943 200 697  
ego.luz@hotmail.com

## LEIHOAK

**LODOSO**  
**LEIHOAK**  
SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
lodosofj@gmail.com  
Tel.: 943 74 34 90

## IGELTSERITZA

**A. Garate**  
Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten aditua  
angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia  
Elgoibar  
**610 226 651**

**E. ARANDIA**  
ERREFORMA ETA LEIHOAK  
Urasandi, 22 behea - Elgoibar  
Tel.: 605 705 204  
Gremioen arteko  
koordinazioa.  
Pladurarekin ere  
lan egiten dugu.

## PINTURA

**BIOK**  
dekorazioa  
Uparitzaga, 14 - Elgoibar  
943 741 552  
606 431 120  
biok@biokdekorazioa.com